DROGETEN ITURRI

Ermuko eta Mallabiko aldizkaria. 294. zenbakia. 2020ko azaroa

Ostalariak suminduta

IRAZABAL

clínica dental

Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adtua Aho Kirurgian, Periodontzian, inplantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Autran Institutoa. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Aníbal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

Facebooken: Clínica Dental Irazabal **www.clinicairazabal.com**

IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1. esk. - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - **www.clinicairazabal.com**

RPS 173/15

ARGITARATZAILEA:
Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:
Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.eus

ERREDAKZIO TALDEA:
Alazne Aiestaran,
Amaia Arginzoniz,
Estibalitz González,
Jon Saez,
Libe Solozabal,
Dorleta Vidal
eta Irati Yarza.

KOORDINAZIOA ETA MAKETAZIOA:
Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:
Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:
Ainhoa Lasuen.

LAGUNTZAILEAK:
Anaitasuna Ikastola,
Naroa Beitia,
Antonio Hernández 'Cuco',
Patxi López eta
Valentin Mugarza.

ARGAZKIAK:
Anaitasuna Ikastola,
Naiara Aranda,
Antonio Cid,
Estibalitz González,
Valentin Mugarza,
Nahia Ruiz,
Jon Saez,
Arrate Urionaguena
eta Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:
Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:
Piedi Eizagirre,
Ayoub Hdidou
eta Olatz Vidal.

TIRADA:
2.425 ale.

ISSN:
1133-973X.

LEGE GORDAILUA:
SS-213/1994.

Drogetenitturrik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako iritzien erantzukizunik.

Bertoko kantuak

Herritarron ahotik

Gaia: ume-kantua

Alon dingi dago

(Entzuteko: www.alboka.es)

Alon dingi dago
txiliña jotzen dago,
dejolin ta dejolan
a los gordos gordos van.
Dejerito korotz manda
- ¿Qué es esto?
- Prakesto!
- ¿Qué haces ahí?
- Praka nasai!
Cuchillito, cuchillito baztarrera!

Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA.....4
Naiara Aranda (Alemania)
ELKARRIZKETA.....5-7
Antonio Cid entrenatzailea
MALLABIAN ZER? 8-9
San Juaneko eskolako gomutak
MOTZEAN.....10-11
Hainbat sari zozketatuko dira IGOn
ERMUAN ZER? 12-13
Nahia Ruiz / Euskaraldia
ESKOLEN TXOKOA.....14
Anaitasuna Ikastolako berriak
BOTEPRONTOAN.....15
Arrate Urionaguena
ERREPORTAJEA.....16-17
Ostalaritza jomugan
IRITZIA 18
Normalitate berria, zailtasun berriak
ZORION-AGURRAK 19
Saldu, erosi edo agurtu
ANTZINAKOAK.....20
Ermuko eta Mallabiko argazkiak
SAREAN GALDEZKA.....21
Lortu duzu inoiz gaztelaniazko harreman bat euskarara aldatzea?
ABENDUKO AGENDA....22

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

MALLABIKO UDALA

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Naiara Aranda

Zazpi urte daramatza atzerrian Naiara Aranda ermuarrak. Ikasteko asmoarekin joan zen eta, lan aukera ezberdinak direla-eta, kanpoan bizi da ordutik. Azken urtea Berlinen eman du.

- Erabaki erraza izan zen Ermutik joatea?

Bai, argi neukan atzerrian bizi nahi nuela eta beste kultura eta ohiturak ezagutu. Gainera, nahi izanez gero, ikasketak amaitzerakoan etxera bueltatzeko posibilitatea neukan.

- Berlinen bizi zara gaur egun. Nola imajinatzen zenuen leku hura? Aurreiritzirik zenuen?

Alemaniatik gertu bizi izan naiz iraganean, beraz, herrialdea askotan bisitatu dut eta ikaskide eta lankide alemaniar asko izan ditut. Beraien ohiturak eta kultura ezagunak nituen. Hala ere, Berlin oso ezberdina iruditu zait, hiria bizirik dago edozein momentutan, eta ekintza sozial eta kultural asko daude.

- Bere alde onak eta txarrak aipatu beharko bazenitu…

Arreta deitu zidan hiri handia izan arren, leku batetik bestera mugitzea erraza dela, batez ere bizikletaz. Aldiz, bertako janaria espero nuen bezain txarra da. Hala ere, herrialde desberdinetako komunitate handiak daude, eta janari eskaintza oso zabala eta ona dago.

- Ondo moldatzen zara alemanarekin? Joan aurretik menderatzen zenuen?

Iritsi nintzenean ez nuen hitzik ulertzen. Ondo moldatzen naiz ingelesarekin leku gehienetan, baina alemana ikasten hasi naiz. Laneko hizkuntza ingelesa izan arren, alemana ikasteko kurtso asko eskaintzen dituzte doan.

- Zerbait botatzen duzu faltan?

Janaria, mendiak eta hondartza. Alemania oso laua da eta, lakuak izan arren, udan itsasoa faltan botatzen dut. Familia eta lagunak ere faltan botatzen ditut, baina bidaiatzea geroz eta errazagoa da.

- Nolakoa da zure egun arrunt bat?

Goizean lanera joaten naiz bizikletaz (edo etxean lan egiten dut azkenaldian, koronabirusa dela-eta). Arratsaldean, kirola edo marrazketa klaseak ez ditudanean, trago bat hartzera joaten naiz lagunekin. Asteburuan parkeetan pasatzen dut denbora asko, bertan ekintza asko antolatzen direlako: merkatuak, kontzertuak, festak…

- Noiz egon zara Ermuan azken aldiz? Noiz bueltatuko zara?

Iazko gabonetan egon nintzen azken aldiz Ermuan, eta aurtengo gabonetan bueltatuko naiz. Aurten ez da erraza izan bidaiatzea, baina normalean urtean bizpahirutan joaten naiz.

- Ermura bizitzera bueltatuko zarela uste duzu?

Momentuz gustura nabil Berlinen, eta ez dut Ermura bueltatzeko asmorik.

Libe Solozabal

Antonio Cid entrenatzailea, belauniko, Ermuko entrenamendu taldeko kirolariekin.

Antonio Cid, entrenatzailea:

"Ez ditut txapeldunak entrenatzen, pertsonak baizik"

Estatu mailako atletismo txapelketa guztietan, Bizkaiak 8 domina lortu zituen joan den denboraldian, eta horietatik 6 Ermuko kirolariek irabazi zituzten. 2020an, ermuarrek 67 domina lortu dituzte, estatuko, autonomiako eta lurraldeko txapelketak batuta. Txapeldunen habia bilakatu da Ermuko taldea, eta bere entrenatzailea den Antonio Cidek badu zerikusia eta zeresana. 35 urte baino gehiago daramatza atletismoaren munduan buru-belarri, jauzien esparruan batik bat; 5 urte Kiroleneko irakasle bezala (Kirol Irakaskuntzen ikastetxe publikoan, alegia); eta 8 urte altuera jauziko talentu berriak aurkitzeko arduradun bezala Espainiako Atletismo Federazioan, 20 urtetik beherako kategorietan. Elkarrizketa honetan Cidek ahotan hartu ditu bere taldearen indarguneak, gabeziak eta erronkak.

- Ermuko kluba puntakoenen artean dago?

Beno, argitu behar dut kluba izan beharrean, entrenamendu taldea garela. Gure arazoa da, oso talde txikia garela eta oso emaitza onak ditugula. Horregatik ez daukagu taldea eusteko aurrekontu nahikorik. Pentsatu nazio eta nazioarteko mailako txapelketa askotan parte hartzen dugula, eta horrek dirutza balio du (bidaiak, hotelak...). Horregatik, kirolariek hemen entrenatzen dute, baina bakoitzak bere kluba dauka, eta klub horiek arduratzen dira kirolariaren fitxa, arropa, eta bidaiak (besteak beste) ordaintzeaz: Durangoko Bidezabal AT, CA Portugalete, Zaragozako Scorpio-71… Arantza Morenok, esaterako, hemen entrenatzen du, baina Barcelona FC taldeko kidea da. Praktika hau oso ohikoa da, herri guztietan ez dagoelako atletismo klubik. Kluba osatu ahal izateko kirolari mordoa behar da: 21 proba daude atletismoan eta gutxienez 15-16 kirolari behar dituzu proba horietan parte hartzeko, 5 kategorietan (kadete, jubenil, junior, promesa eta senior): atera kontuak!

- Ez duzue inolako dirulaguntzarik jasotzen?

Ez. Ermuko Udalaren araudiak dio talde batek udal diru-laguntza jaso ahal izateko, baldintza batzuk behar dituela, tartean kluba izatea, eta guk ez dugu baldintza hori betetzen. Hori dela-eta, Udalak ez digu dirurik ematen, baina horren ordez, materiala erosten digu urtero.

- Non dago talde honen arrakastaren gakoa?

Lau hanka aipatuko nituzke. Lehenengo eta behin, azpiegiturez hitz egin beharko genuke. Beti dago zer hobetu, baina Betiondoko instalazioak oso egokiak dira, eta kanpotik datozen kirolariak harrituta geratzen dira. Esango nuke Bizkaia osoko lekurik onena dela entrenatzeko. Materialari dagokionez, kontuan izan pertikajaurtitzaile batek, esaterako, 10 pertika behar dituela gutxienez, gainditu beharreko alturaren arabera pertika ezberdina behar duelako. Eta indarraren arabera, pertika malguagoa izan behar da, beraz, kirolaria hazten eta hobetzen doan heinean, beste pertika mota bat behar du. Ez dut uste dagoenik Ermuko Udalak baino pertika gehiago erosi dituenik.

- Zein da bigarren baldintza?

Ezinbestekoa da taldeak kohesioa izatea, kideek harreman ona izatea. 14 urtetik gorako gaztetxoak entrenatzen ditut, eta hemen ematen duten denborak ordezkatu behar du euren koadrilarekin igaroko luketena. Ezin dute entrenamendua bukatu eta 2 ordu lagunekin eman, beste 2 ordu mugikorrarekin... ez dago denborarik, horregatik da hain garrantzitsua harreman ona sustatzea.

- Eta hirugarren osagaia?

Gure taldean protokolo bat daukagu, beste talde gehienetan ez dutena. Kirolari bat entrenatzera datorrenean, nik ez diot esaten balekoa den edo ez: Test fisiko batzuk egiten dizkiot eta, datu objektiboetan oinarrituta, ikusi dezaket nora heldu daitekeen, eta orientatu. Hortik abiatuta, errazagoa da bai niretzat bai berarentzat proba jakin baterako entrenamendua prestatzea eta emaitzak lortzea. Kirolariaren gaitasuna eta gustua bat badatoz, zoragarri.

- Protokolo horrek laguntzarria ematen du. Zergatik ez dute beste leku batzuetan erabiltzen?

Beno, uste dut ni naizela kirolariei kobratzen ez dien entrenatzaile bakarra. Beste entrenatzaile batzuk 100 atleta dituzte, ez dituzte espezializatzen, eta bitartean kobratzen jarraitzen dute. Hau ez da nire ogibidea, gustukoa dudalako egiten dut, eta ez dut dinamika horretan sartu nahi.

- Behin proba egokia zein den identifikatuta, nola prestatzen dituzu kirolariak?

Kirolariak sasoian egon behar dira, eta horrez gain landu nahi duten proba horretan trebatu. Jubenileta-tik aurrera, maila gorenera heldu nahi direnek egunero entrenatu behar dute. Esaterako: 17-18 urteko altuera-jauzilari batek 10.000 eta 15.000 hesi-jauzi egin behar ditu urtean, beste gauza askoren artean. Eta ezinezkoa litzateke salto horiek guztiak egitea astean bizpahiru egun entrenatuta. Atletismoa oso gogorra da, entrenamendu trinkoa hasi, eta 8-10 urte behar dira emaitzak lortzen hasteko. Horregatik, gazte asko aspertu egiten dira eta bertan behera utzi.

- Taldera hurbiltzen direnak horren jakitun dira?

Mutil edo neska bat taldera datorrenean, bere gurasoekin hitz egiten dut aurretik, eta azaltzen diet zeintzuk diren taldearen helburuak: jarrera-ereduak ikasi, kirola zer den, oztopoak gainditzen ikasi, bizitzarako prestatu... Asko hitz egiten dut gero gazteekin ere, po-

Antonio Cid Eneko Larrea atletarekin.

"Oso larria iruditzen zait umeei zuzendutako ekintza askotako begiraleek titulurik ez izatea"

Drogetenitturri, 294 zk.

rrotetatik nola ikasi eta dezepzioei buelta ematen erakusteko. Nik ez ditut txapeldunak entrenatzen, pertsonak baizik. Hortik aurrera, txapeldunak badira, ederto; baina hori ez da helburua, bestela txarto goaz.

- …eta emaitzak ikusita, abiapuntu egokia dirudi.

Lehen oso puntako lauzpabost kirolari genituen: Javier Villalobos, Jorge Vega, Fernando Campo, Alex Soto..., eta taldeko gainontzeko kideek maila oso xumea zuten. Gaur egun, Arantza Moreno bakarrik nabarmentzen da, baina gainontzeko kideek maila erdi-altua dute: iaz Espainiako txapelketa guztietako maila guztietan, Ermuko ordezkariren bat egon zen.

- Aipatu gabe geratu zaigu laugarren hanka...

Laugarren hanka zerbitzu medikoak dira, eta atal hau da falta zaigun bakarra. Bartzelona eta Madrilen izan ezik, baldintza hau ez da beste inon betetzen. 1998-1999 urteen bueltan, Villalobosen garaian, Indartu zentroarekin eta Udalarekin hitzarmena geneukan, eta maila gorenean zeuden bizpahiru kirolariri jarraipena egiten zieten, lesioak artatu… Horrek oso eragin positiboa izan zuen. Orain ez daukagu horrelakorik, eta oso mesedegarria izango litzateke neska-mutil hauentzat, baina ez dut esaten Udalaren ardura izan behar denik.

- Aurrera begira, nola lagundu zaitzaketete erakundeek?

Gustatuko litzaiguke herriko erakundeek irizpide bat ezartzea, eta zehaztea zein lorpenetik aurrera egingo zaizkien omenaldiak kirolariei. Bestela, batzuetan, jokaera bidegabeak ikusi behar izaten ditugu. Gainera, lehen aipatu dugun gogaitasun horren kontrako akuiluak izan litezke omenaldi horiek.

- Bizitza erdia dedikatu diozu atletismoari. Zergatik da hain berezia? Zerk bereizten du kirol hau beste kirol batzuetatik?

Beste kirol guztien oinarria da. Kirol guztietan korrika egin behar da (baloi baten atzetik edo baloi barik), salto egin (buruarekin baloiari emateko edo saski batean pilota sartzeko) eta jaurtiketak egin (erraketa batekin, esaterako). Europako iparraldeko herrialdeetako eskoletan atletismoa derrigorrezkoa da, gizakiak modu naturalean egiten dituen mugimenduak batzen dituelako: korrika egin, saltoak eta jaurtiketak. Gaitasun horiek garatzen dituztenek, 14 urterekin edozein kiroletan aritzeko erraztasunak izango dituzte.

- Eta nolakoa da hemengo eskola-umeen errealitatea?

Ermuan, eta beste leku askotan ere gertatuko da seguruenik, umeei zuzendutako ekintza askotako begiraleek ez daukate titulurik. Eta hori oso larria da: nagusien begiraleak tituludunak dira, eta umeenak ez. Umeekin basakeriak egiten dira. Umeek multikirola egin beharko lukete, hau da, gorputzeko atal guztiak landu, eta asteburuan nahi badute, baloi bati ostikadak eman, saskibaloian edo eskubaloian aritu. Baina gaur egun 6-7 urteko ume asko futbolean dabiltza itsuitsuan, eta entrenamendu batean 200 ostikada ematen dizkiote baloiari. Oraindik formatuta ez dagoen orkatila batentzat hori astakeria bat da, eta oso ohikoa da lesioak izatea.

Dorleta Vidal

Dominak 2020an	Urrezkoak	Zilarrezkoak	Brontzezkoak	Guztira
Espainiako Txapelketak	6	1	3	**10**
Euskadiko Txapelketak	17	7	12	**36**
Bizkaiko Txapelketak	11	6	4	**21**
Guztira	**34**	**14**	**19**	**67**

Ermuko entrenamendu taldeko gazteek lortutako dominak.

Espainiako txapeldunak 2020. urtean		
Arantza Moreno	Jaurtiketa luzeen neguko Espainiako Txapelketa.	Xabalina-jaurtiketa
Eneko Larrea	Pista estaliko 18 urtetik beherakoen Espainiako Txapelketa.	Gorako jauzia
Imanol Egidazu	Aire zabaleko 16 urtetik beherakoen Espainiako Txapelketa (Espainiako errekorra).	Oktatloia
Eneko Larrea	Espainiako Federazioen arteko Txapelketa.	Gorako jauzia
Arantza Moreno	Aire zabaleko Espainiako Txapelketa.	Xabalina-jaurtiketa
Eneko Larrea	Aire zabaleko 18 urtetik beherakoen Espainiako Txapelketa	Gorako jauzia

FUB
Mediku psikiatra
Psikoterapia psikoanalitikoa
Psikosomatika
Fernando Urizar Barandiaran
Ego gain ,18-1A. EIBAR. Tel: 615 71 54 04
Bailen kalea, 9-1 ezk. BILBO. Tel: 94 416 49 06
furizar1@yahoo.com

ZK
ZUZENBIDE KONTUAK
Lege eta kontu aholkularitza
Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

OSASUNA * ESTETIKA EDERTASUNA
Marfil
Ile-apaindegi bat baino gehiago!!
Egokitutako burua garbitzeko konketa
943 17 28 09 · Goienkale 12

ARKITEKTURA ESTUDIOA
BERRITZE LANAK ZURE ERAIKINEAN
Ez dakizu nondik hasi?
GURE LANTALDE TEKNIKOAK LAGUNDUKO DIZU
SPARA ARKITEKTURA
ZUK ERABAKI
www.spara.es
info@spara.es
Probaleku, 4 Bis, Bajo 48260 Ermua - Bizkaia
943 17 70 57

RIF
ITURGINTZA KONPONKETAK
Marques de Valdespina 16
ERMUA
605 71 10 81 / 688 71 27 10

Eskolako gomutak

Eskola sasoiko ipoiñek goguen izaten doguz eta, nork entzun euki ezkero, gustura kontatzen doguz kontau be. Ondokuek Pello eta Migel Mugarza anaiek eta Alberto eta Belen Gallastegi lehengosuek akordure ekarrittako San Jungo eskolako bizipen eta diabrukeri batzuk die, oin 50 urte inguruko erretratue irudikatuz.

Goittako eskolaumiek euren maistriakin, 1969an.

Euren berbetan, maistra bat Anuncia izan zan (militarren alabie), beste bat Teresa… Markiñarra zan beste bat: Kuban bizi eta handik bueltautakue semealabak bertan lagata. Esaten ebenez, handik txoritxo bat bez ez ei otsien ekarten laga. Umiei beti Kubari buruz txarto esaka jarduten eban.

Goguen dake be zelan Juan Cruz Gallastegi astuen igotzen zan eskolara, eta beste aldien beste ume bat jartzen zala kontrapesue eitteko; umiek desiatzen egoten ei zien asto gaiñien igoteko Juan Cruzekin batera. Euren akorduz, aurrien beste ume bat juten zan astue eruten eta San Junen gero han egoten ei zan arrantzaka!

Diñuen lez, batzutan abadiek etorten zien eta eskolie euskeraz emoten eben, nahiz eta liburuek erderazkuek izen. Ekarri deiguzan ba orduko denporetako eskola usaiñek euron testigantzen harittik.

Auzokuek San Junen.

Pello Mugarza: Gure lehelengo maistrie Leongue zan, Anuncia Carande. Maistra ona zan. Gu abarkekin juten giñen eskolara. Neska ta mutil, 20 bat-edo. 6 urtetik hasi eta 11ra artekuek. Goixien esnie emoten euskuen edateko, esnehautsaz eindekue. Baserrixetan behi esnie besterik ez, eta gu esne-hautse edaten! Bazkaltzera etxera juten ginen. Maistriek bertan bazkaltzen eban, eta lo eittera Trabakure juten zan. Beti maistrak euki genduzan, ixe beti erdeldunek. Azkeneko urtienedo Markiñeko maistra bat euki genduen, Maritxu. Ondo konpontzen giñen maistrekin, ez naz akordatzen behin be jo giñuenik. Eurek be iguel eukiko eben gure bildur pixkat. Onak izengo zien guri zeozer erakusteko kapaz bazien!

Neguen sue ixotzen genduen, egurrekin, eta akordatzen naz eskolan aspertzen giñenien, adar berdiek sartzen genduzela, holan eskolie kez betetzen zan eta danok kanpora urtetzen genduen. Horretan, piñu adar berdiek sartzen Migel anaixe artistie zan!

Orduen olgetarako joku mordue ezagutzen genduen: pelotan, txapa karreran, kubike, paiñuelitoka… txori habixak topatzen be ibiltzen giñen txori kuttauen desgrazireko. Burrukan be askotan eitten genduen. Gure danon jefie Juan Luis aguzille izeten zan, zaharrena; txikixe baiña gogorra! Auzokuek ez zienak, Urkixakuek, Gomeziako Juan Luis, Abendibarkuek… askotan aurrien erabiltten genduzen eta ihesi juten zien etxera, sarritten negarrez. Baina, aguzillek danak zittuen kontrarixuek.

Abadie be egoten zan, ez dakit astien zenbat egune-

Drogetenitturri, 294 zk.



Juan Cruz Gallastegi eskolan, 1966an.

tan. Lehelengue Mikel Zarate izen zan. Harekin ondo pasatzen gendun; kantuek ikesi eta olgeta asko be bai. Gero Don Migel, Larrabetzukue, Don Santiago, Don Pedro Elorrixokue eta azkena Ruben. Don Pedro, "Pedro Haundi", haundixe zan eta askotan bera zan burrukan eitten ipintten ginttuena. Eskolie be emoten euskun. Eskuetan euken lehenengo gauzie botatzen euskun despistaute edo berbetan harrapau ezkero. Bat baiño geixa juten zan etxera begi-ondue baltzittute. Amuriza be etortzen zan, abade ein barri, ejerziziuek emotera, ez dakit ze sasoi izengo zan, Aste Santue-edo. Polentiñoren kontuek-eta kontatzen euskuzan. Harekin gustora egoten giñen!

Alberto Gallastegi: Bai, Polentiño errementarixe zan, Aste Santuko ejerziziuek izaten zien.

Eskolan derrigorrez erderaz ein biher izeten zan, bestela kastigue izaten genduan. Maistra batek katiorratza jarten otsen euskeraz berbetan ebilenai eta gero norberak topau biher izeten eban beste bat katiorratza pasatzeko. Etxera juteko orduen katiorratza eukanak, zigorra!

Migel Mugarza: Maistriai txixe eitteko permisue eskatu ta eskoliai zeinek buelta gehixa emon ibiltten giñen be. Komunik etxauanez...

Pello Mugarza: Bai, eta kanpoko horman txixe zeinek gorau ein be bai!

Migel Mugarza: Abendibarko Alberto zuan onena!

Pello Mugarza: Juan Angel zanak despertadorie eruten eban etxerako ordue zanien joteko.

Belen Gallastegi: Ba ni akordeten naz eskolara oinez juten giñala, goizeko bedratzirak alderako eta hamabixek arte, eta gero arratsaldien barriro. Eskursiñuek normalien oiñez eitten genduzen: esate baterako, Bariñara Mendibiletik bueltan. Behin Mallabiko eskolakuekin batera Pedernalesera jun ginen autobusien. Itziar Gallastegi, Izaskun Totorika eta neu marea igo eta harri artien urten ezinda geratu giñen. Guardia Zibillek etorri zien erreskatera.

Valentin Mugarza

FEREDU
SOLUTIONS S.L.



* HEZETASUNAK
* ERREHABILITAZIOA
* INPERMEABILIZAZIOAK
* MANTENIMENDUAK
* IGOGAILUAK
* ERREFORMAK
* FATXADAK
* ITE
* TEILATUAK
* GARBIKETAK

www.feredusolutions.com
699 476 112 / 946 423 649 ERMUA

ANGEL MARI UNZUETA HIL DA

Ermuan eta Mallabian abade izandako Angel Mari Unzueta durangarra, 67 urterekin hil da bat-batean. Bizkaiko Elizbarrutiko bikario orokorra izan da 12 urtez eta une honetan Urkiola eta Otxandioko parroko gisa aritzen zen. Bizkaia eta Herri Irratien kolaboratzaile, 2014an Lauaxeta Saria jaso zuen lan horrengatik. Gurean 1979-1984 urteen artean egon zen abade taldean, eta herritarren artean maitatua eta gogoratua izan da gerora ere.

KONFINATOIA FILM LABURREN LEHIAKETA BURUTUKO DA ABENDUAN

Abenduaren lehen asteetan Ermuko I. Film Laburren lehiaketa burutuko da, Konfinatoia izenekoa. Euskal Birusa Euskara Elkarteak eta Gazte Asanbladak elkarlanean sustatutako ekimena da, eta bi kategoria egongo dira: 18 urtetik beherakoena, eta 18 urtetik gorakoena. Lehen kategorian, 100?ko sari bat eta 50?ko bi sari banatuko dira; 18 urtetik gorakoen mailan, aldiz, 150?ko sari bat, eta 50?ko bost sari. Parte hartu nahi dutenak adi egon beharko dira, sare sozialen bitartez jakinaraziko baita landu beharreko gaia. Lanak aurkezteko azken eguna abenduaren 12a izango da, eta sari banaketa abenduaren 13an burutuko da.

Hainbat kultur jarduera burutuko dira Mallabian azaroan eta abenduan

Mallabiko Udaleko Kultura Sailak umeei eta helduei zuzendutako hitzaldiak, antzerkiak eta ikuskizunak prestatu ditu datozen asteetarako. Azaroaren 27an, ostirala, "Trakamatraka: ikuskizun musikala birziklatutako materialekin" emanaldiaz gozatzeko aukera egongo da (17:30ean, frontoian). Abenduaren 13an, igandea, zirkua, musika eta dantza uztartzen dituen "Alodeyá" ikuskizuna eskainiko da (12:30ean, frontoian). Abenduaren 17an, osteguna, Zaporeak GKEaren hitzaldi-aurkezpena egongo da (18:30ean, Kontzejuzarrean), eta honekin lotutako erakusketa ipiniko da Kontzejuzarrean abenduaren 17tik 27ra. Azkenik, hilaren 19an, larunbata, Txalo Produkzioaken "Zoaz pake santuan" antzerkia ikusteko aukera egongo da (18:30ean, frontoian). Ekitaldi guztietan aforoa mugatua izango da, eta ikuskizunak hasi baino 30 minutu lehenago zabalduko dituzte ateak. Antolatzaileek argitu dutenez, egungo egoera dela-eta, baliteke ekitaldi batzuen ordua aldatu behar izatea.

Danobatgroupek Euskararen Egunarekin lotutako lehiaketa antolatu du

"Batzen gaituen esentziak izan dezala presentzia" lemapean kaleratu du beste urte batez Danobatgroup kooperatiba taldeak enpresak dituen herrietara zabaldutako lehiaketa, Euskararen Nazioarteko Egunaren harira. Aurtengo ariketak euskararen inguruan hausnarketa bideratuko du, eta lehiaketan parte hartzeko ondorengo helbidean sartu behar da: info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2020.html. Azaroaren 30a izango da lehiaketan parte hartzeko azken eguna, eta abenduaren 3an jakinaraziko dute irabazlearen izena. Gainera, parte hartzaile guztien artean Errigorako hainbat saski zozkatuko dira.

Danobatgroup industria taldea espezializatuta dago makina-erreminten fabrikazioan, balio erantsi handiko osagaien fabrikaziorako garapenetan, giltza eskura erako ekoizpen sistemetan eta zerbitzu teknologikoki aurreratuetan, eta Danobatgroup kooperatibaz gain Danobat, Goiti, Soraluce, Goimek, Latz eta Ideko kooperatibek osatzen dute taldea. Taldeko enpresak kokatuta dauden ingurune soziolinguistikoari begiratuz eta kooperatiben izateko era eta konpromisoari jarraituz, lemak dioen moduan, euskara da batzen gaituen esentzia hori, eta euskarak arlo guztietan presentzia izateari ematen ari zaio garrantzia azken urteetan. Presentzia eguneroko lanean, teknologia berrietan, elkarren arteko harremanetan eta ikerketa eta garapenean, besteak beste. Baina egunerokotasunetik haratago, gizarteari ere euskararekiko duen konpromisoaren berri eman nahi zaio Danobatgroupetik, eta presentzia izatera bideratu *batzen* gaituen hori. Danobatgroupek harreman sare zabala du eta bezeroekin sarri ingelesez baliatu behar izaten bada ere, bertako langile, hornitzaile, bezero, ikastetxe, administrazio eta abarrekin euskara erabiltzeko konpromiso sendoa du, eta horren adierazgarri dira taldeko kooperatiba guztietan euskararen erabilera bultzatzeko dituen planak, eta lortutako eta lortzeko bidean dauden Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiriak.

Egaña
ETXETRESNA ELEKTRIKOEN SALMENTA ETA KONPONKETA
Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

Proba-Leku
Ileapaindegia - Estetika
Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

SEHIGA
PROTECCIÓN LABORAL
LAN BABESRAKO ORNIDURA
Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

Senenek eta Albokak irabazi dute San Martin azokako erakusleiho lehiaketa

San Martin azoka egin ezin izan den arren, Euskal Birusa Elkarteak hainbat ekimen antolatu ditu jai honen inguruan, tartean urteroko erakusleiho lehiaketa. Parte-hartzaile guztien artean, Senen bitxidendaren eta Alboka Musika Eskolaren proposamenak nabarmendu ditu epaimahaiak. Senenen kasuan, "gustu handiz eta detailera egindako lana izatea" goraipatu dute epaileek, "idatzitako mezuaren esanahi hunkigarria eta argazkien bitartez San Martin egunaren bizipenak gogora ekartzea". Alboka Musika Eskolari dagokionez, epaimahaiak kontuan hartu du erakusleihoaren argiztapen egokia, simetriarekin jokatzen jakitea, eta sortutako konposizioak laguntzen duela transmititu nahi izan den mezua ulertzen.

Hainbat sari zozketatuko dira Irakurri Gozatu eta Oparitu ekimenean

Abenduaren 9an bukatuko da aurtengo Irakurri, Gozatu eta Oparitu egitasmoan parte hartzeko aukera, eta eskuhartzaile guztien artean sari potoloak zozketatuko dira. Antolatzaileek azaldu dutenez, herri bakoitzean liburu elektroniko bat zozketatuko da, tartean Ermuan, eta horrez gain 500 liburu zozketatuko dira Euskal Herri osoan. Parte hartu nahi dutenek, Udal Liburutegira jo beharko dute, euskarazko liburu bat maileguan hartu eta irakurketaz gozatu. Jarraian, liburu hori nori oparitu pentsatu beharko dute, eta liburua Liburutegira itzultzerakoan, fitxa bat bete eta pertsona horrentzako mezua idatzi. Herri guztietako fitxak jasotakoan, 500 libururen zozketa egingo da, eta tokatuz gero, oparitu nahi duten liburua jasoko dute etxean, mezua liburuan itsatsita duela. Euskal Birusa Euskara Elkarteak eta Euskaltzaleen Topaguneak antolatutako ekimena da.

ABENDUAREN 16AN BURUTUKO DA NEGUKO FESTEN ETA OSPAKIZUNEN INGURUKO HITZALDIA

"Koko janztea ez da disfrazatzea. Eske errondak eta mozorroak neguko festetan" izenburupean, hitzaldia eskainiko du Oier Araolaza kazetariak Ermuan. Urriaren 28rako aurreikusita egon arren, abenduaren 16an egingo da, Lobiano kulturgunean, 19:00etan.

DROGETENITTURRI ALDIZKARIAREN BABES-KANPAINA BUKATU DA

Azaroaren 18an Drogetenitturri aldizkariaren aldeko babes-kanpaina jarri zen martxan. Proiektua sendotzen laguntzeko prest zeuden herritarrak 40€ko ekarpen ekonomikoa egin behar zuten, eta horren truke oparisorta jasoko zuten. Astebetez izenak jaso eta gero, tokiko komunikabide honek bukatutzat eman du kanpaina hau, eta parte hartu duten guztiei eskerrak eman nahi dizkie. Laster jarriko da haiekin harremanetan opari-sorta helarazteko.

“Nahia”, artista:

“Nire obrak estandarrak apurtu nahi ditu”

Bizkaiko Foru Aldundiak antolatzen duen Ertibil Bizkaia ikus-arteen erakusketa ibiltariaren 38. edizioan, Nahia Ruiz Albizuri, “Nahia”, ermuarraren *Zauriak* obra egongo da ikusgai. Erakusketa Lobiano Kulturgunean izango da abenduaren 1etik 29ra.

- Lehen aldia da zure obra bat horrelako erakusketa baten ikusgai dagoela. Nolakoa izan da prozesua?

Parte hartzia oso sinplia izan da, papeleo gitxien bete behar dozun erakusketa da, gaiñera lortzeko erreza: errolda, kontu korrontia... Gero aurkeztu eta aukeratzen bazaitxue guztiaz ahazten zara, eurek eitxen dabe lana: mugitu, eruan, antolatu... eta gero deitzen dotsue zure iritzia jasotzeko: "Horrela ondo dago?". Zoragarrixa da erakusketa hau!

- Zer uste duzu ekarri ahalko dizula zure ibilbidean?

Berez Ertibil nahiko inportantia da, azkenian sari potoluak emoten ditxu, diru asko banatzen da, eta hori eukitzea... Artisten kurrikulum-ean kontatzen dabe bai kataloguak, erakusketak zein Aldundian norberan lanen bat egotiak. Honek justu hori eskeintzen dotsu: katalogo bat, erakusketa bat... eta gehitzen juatia. Emoten dotsu *caché* moduko bat. Garrantzitsua da arte munduan jarraitxu nahi badozu, eta bekak eskatzeko ere garrantzitsua da kurrikulum bat eukitzia. Askotan zure lana ezin badozu justifikatu ezerezian geratzen da. Aukera on bat da.

- Nondik dator obra hau?

Tornuko ariketa bat zan. Tornuan kriston teknika behar da, nik ez nekana, lehenengo aldia zalako. Eta konturatu nintzan lan danak zirala bardin: biribilak, hutsak... Orduan nere buruari esan notsan: "Ez dakidanez eitxen, emongo dotsat buelta, jarriko dot karratu bat, bloke tipokua, eta ez dau ezta hutsa". Orduan buelta eman eta... klaro, karratu bat zan eta tornuan eskua edo erremintak sartu ezkero, beti saiatzen da biribil izaten... Azkenian bost pieza dira, bost karratu, eta tornuan bardin landu eta gero, bakoitzak era baten erreakzionatu dau. Baiña tornua eitxen ez nekixalako zan, kar-kar!

- Nola azalduko zenioke zure obra ermuar bati?

Ba... oso gatxa da! Kar-kar! Nire obrak estandarrak apurtzea nahi dau, eta tornuan beti nolabaitxeko biribila eta hutsa desberdin ein. Oso gatxa da! Molde edo inposatutako forma horietatik etaratzen saiatzeko era bat.

- Badaukazu beste proiekturik esku artean? Buruan zerbait?

Bai. Urtarrila amaieran Bizkaia Aretoan erakusketa bat dakagu. Eta noizbait egin dogu lagun batek eta biok berba Emakumean Etxian edo Lobianon zeoze jartziaz. Gustauko jakun erakusketa konjunto bat eitxia. Ideia hori da, baina denpora faltiagatxik... nik ondiñok ez dot ezebe ein, kar-kar! Gero, Arte Ederretaz aparte... Kimika gainditu (kar kar!), eta trikia, trikitixa behar dot! Kaleko ekitaldixetan jotzen neban eta orain... Trikia jarraitu nahi doten proiektu bat da.

Jon Saez

CITROËN
AUTOS AMEDI
Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Telefonoa 943 17 04 14

ITURGINTZA - GASA - BEROKUNTZA
PALACIOS SM
ENPRESA INSTALATZAILE BAIMENDUA
GREMIOEN KUDEAKETA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
San Pelayo 26, behea · Ermua (Bizkaia)
info@palaciosfontaneria.com / www.palaciosfontaneria.com
660 72 95 03 • 659 75 74 59 • 943 53 92 23

Bitxi-denda Tailer propioa Eloju-denda
Senén
1978
Diseinuak eta kalitateak bereizten gaituzte
San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com

enolimp
GARBIKETA ZERBITZUAK
Tel.: 94 659 01 41 - 618 89 29 60
E-maila: info@enolimp.es
48620 Ermua (Bizkaia)
Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak
Obra amaiera eta erreformak
www.enolimp.es

Euskaraldiko rolei ekiteko aholkuak

Abenduaren 20ra arte martxan egongo da Euskaraldia, euskaldunon hizkuntza-ohiturak eraldatu nahi dituen ariketa sozial erraldoia. Jantzi zure txapa, jarraitu beheko aholkuak, eta astindu euskara!

Gaztainerre ospatu dugu

Azaroaren 16an ospatu genuen Gaztainerre Ikastolan. Aurten, 3. zikloko ikasleek, ikastetxeko taldeei bideodeiaren bitartez eman zizkieten azalpenak. Gaztainak, segurtasun neurriek agintzen duten bezala, eserita eta elkarren arteko distantzia gordeta jan zituzten.

2. zikloko ikasleek irteera bi egin dituzte

Aurtengo irteerak aire zabalekoak izatea gomendatzen denez, 3. mailako ikasleak Urkiolara joan ziren egun pasa: autobusez Urkiolaraino, eta gero Pol-Polera oinez.

Bestalde, 4. mailako ikasleak Trabakuraino oinez joan ziren Goitta auzotik. Bidean hainbat animalia ikusi zuten (txerriak, oiloak, antzarak, behiak..), eta Trabakurako bidea gurutzatzeko egurrezko zubi berria estreinatu zuten.

HHko 3 urtekoak ortuan

Hiru urteko ikasleak ortura joan dira eta, bertan, berakatzak eta azenarioak erein dituzte. Sarri joango dira nola hazten diren ikustera, eta hiru hilabete barru azenario gozo-gozoak jateko moduan egongo diren esperantza dute.

ARRATE URIONAGUENA

- Nola gogoratzen duzu zure haurtzaroa?

Oso pozik. Jolasean eta egun guztia kalean egiten genuen lagunekin. Jendearekin askoz harreman gehiago izaten genuen. Etxeko ate eta leiho guztiak zabalik egoten ziren, eta bertatik komunikatzen ginen gurasoekin.

- Eta gaztaroa? Zertan aldatu da gaur egunekoarekin alderatuta?

Zoragarria. Ermuko boom hori harrapatu nuen. Ermuan gazte mordo bat bizi ginen, eta momentu horretan Ermura etortzen ziren inguruko herri guztietako gazteak.

- Zer dela-eta joan zinen Ermutik?

Eibarren hasi nintzelako lanean. Duela 22 urte taberna bat izan nuen eta lanera bajatzeko kotxe bana behar genuenez, bi kotxe erosi beharrean, erabaki genuen etxea Eibarren erostea, baina ez dut bizitzarik Eibarren egiten. Ermura etortzen naiz beti, ez naiz ohitzen, Eibarko giroa ez zait gustatzen.

- Hori izan zen zure lehenengo lana?

Ez, aurretik Eibarko Citroën kontsezionarioa garbitzen hasi nintzen larunbatetan; ondoren, 18 urterekin ireki nuen nire taberna. Gerora Anaitasuna Ikastolako jantokira lanera joan nintzen, eta bertan egin ditut 18 ikasturte.

- Zer izan da lan honetan gehien estimatu duzuna?

Arrate Urionaguena Ortuzar. 43 urte ditu eta 5 neba-arreben artean txikiena da. Bi seme-alaba ditu. Ostalaritzara lotuta beti, duela 20 urte Eibarrera bizitzera joan zen. 18 eman ditu Anaitasuna Ikastolako jantokian lanean.

Jantokian oso pozik ibili naiz. Baina gehien gustatu zaidana izan da bi lanak (taberna eta jantokia) bateratzean sortutakoa. London tabernan lanean hasi nintzenean, gauez, nire jantokiko umeak izandako guztiak aurkitu nituen bertan. Horiek nola onartu nauten zoragarria izan da: lehen jantokiko sorginak ginen, eta orain harreman ona dugu. Geroko harreman hori niretzako zoragarria izan da.

- Eta gutxien gustatu zaizuna?

Batzuetan, umeek konfiantza gehiegi hartzen dute jantokian begiraleekiko, eta askotan zaila izaten da neurtzea. Tabernan gehiegizko konfiantza puntu hori ere askotan gertatzen da.

- Zer da jantokiko lan honen atzean dagoena eta jendeak ez duena ikusten?

Jantokiko lana erraza dela uste dute askok. Hilabetez greban egon ginen gure baldintzak hobetzeko asmoz, baina askok ez zuten grebaren arrazoia ulertzen. Horrenbeste umeri batera jaten ematea zaila da.

- Aisialdian…

Bakarrik paseatzea gustatzen zait, eta irakurtzea. Carmen Laforeteren *Nada* nobela dut eskuartean.

- Akats bat?

Gaseosa bezalakoa naiz, haserretzean ez dut kontrolatzen zer esaten dudan. Badakit barkamena eskatzen, baina burura etortzen zaidana botatzen dut pentsatu gabe.

- Bertute bat?

Beti egongo naiz nire jendeak behar banau, haserre egon arren, bertan egongo naiz.

- Zer da egunero kale egin gabe egiten duzun hori?

Ezin naiz etxetik atera ohea egin gabe. Etxeak beste itxura bat du oheak eginda.

- Eguneko momentu bat…

Umeak ohera doazenean eta ni nire kafetxoarekin gelditzen naizenean.

- Zein albiste gustatuko litzaizuke irakurtzea?

COVID-19a kontrolatuta dagoela, eta bizitza normalera itzuli gaitezkeela. Ostalaritzan egiten dut lan, itxita gaude eta oso gogorra da. Ez dut uste egoeraren erruduna ostalaritza denik, bide errazena hartu dutela uste dut. Gainera nire semeak 18 urte ditu, eta ikusten dut ezin duela guztiz disfrutatu. Gazteriak pena ematen dit, 18-19 urte bizitzan behin bakarrik ditugu.

Irati Yarza

solozabal
tabakoak
torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33

optika
itze
✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA
Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51

Ostalaritza jomugan

Martxotik ekainera arteko itxialdian, 2020ko lehen astindua jaso zuten ostalariek, beste sektore askok bezala. Lau hilabete igaro eta gero, COVID-19aren bigarren olatu honetan, tabernariak instituzioen jomugan sentitzen dira. Euren egoera salatzeko eta laguntza publiko gehiago eskatzeko, hainbat mobilizazio antolatu dituzte Ermuan azken asteetan.

“Ez daukagu hitzik aurtengo egoera deskribatzeko”, esan dute Ermuko ostalariek. Konfinamendua bukatutakoan zabaldu ahal izateko ezarritako neurriekin (distantziak, edukiera, mahai eta jarlekuen desinfekzioa…), sektorea burumakur zebilen; azaroan ezarritako itxiera akabera izan da. Tabernariak haserre daude, eta salatu dute instituzioek behin eta berriro hartzen dutela ostalaritza birusaren barreiatzaile nagusitzat. “Argi daukagu gure sektorea dela gehien arduratzen dena arauak era ezin hobean betetzen eta, hala eta guztiz ere, begirada guztiek gure gainean jarraitzen dute. Luparekin begiratzen gaituzte”, adierazi dute. Beste jarduera batzuekin alderatuta, kasu honetan instituzioak modu bidegabean jokatzen ari direla salatu dute. “Ikusi besterik ez dago zer gertatzen den garraio publikoetan, saltoki handietan, irakaskuntzan edota hamaika tailerretan”, kexatu dira ostalariak.

Hainbat mobilizazio egin dituzte horrekin guztiarekin haserrea eta desadostasuna adierazteko. Baina kontua ez da hor bukatzen. Euren ustez, horrelako neurriekin “hanka sartzen” ari dira agintariak. “Ostalaritza ixten badute, komertzio guztia geldiarazten dute. Jendea ez da jada kalera irteten, eta dendetan asko igartzen dute. Horrez gain, ostalaritzaren inguruan lan egiten duten beste sektore batzuengan eragiten da (edari, janari eta izotz banatzaileengan, garbitzaileengan, makinetako teknikariengan…), eta kutsatutakoen zenbakiek ez dute behera egiten. Irtenbidea ez da tabernak ixtea, baizik eta osasun arloan irtenbideak topatzea. Hanka sartze guzti hauek gaixotzen direnengan eta haiek artatu behar dituztenengan dute eragina. Hori da larriena, eta horretaz ezer gutxi esaten da”.

Mobilizazioen jarraipena

Itolarrian egoteak ostalarien arteko harremanak sendotu ditu, eta WhatsAppeko talde baten bitartez bakoitzak bere ekarpenak egiten ditu (aholkularitzek emandako informazioa partekatu, diru-laguntzen berri zabal-

Plan B
Coffee Lounge Gin & Beer

TXALAPARTA ABERNA
Eta asteburuetan pintxoak, afariak eta bokatak!
- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...
Erdikokale 13 (Ermua)
ENKARGVAK 943 030 299

LURPE ERMUA ERMUA

Caperos
Pintxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitartekoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15

du…), edota mobilizazioak antolatzen dituzte.

Azken mobilizazioa azaroaren 14an egin zen. Manifestazioa deitu zuten herriko ostalariek, eta harrituta geratu ziren herriko kolektiboen, banatzaileen eta herritarren erantzunarekin. Izan ere, herriko jendearen babesa igarri dute uneoro, tabernak itxi behar zirela entzuten hasi zenetik. “Esango genuke jendeak gehiago kontsumitzen zuela, nolabait lagundu nahi zuela, bere aletxoa jarri. Bezeroaren eta tabernariaren arteko harremana adiskidetasun harremana da askotan, eta hori igartzen da”, diote tabernariek. Eta bestalde, nabarmentzen dute saltoki askok pertsiana itxi zutela larunbatean, elkartasuna adierazteko.

Erakundeekin harremana

Herritarren babesa bai, baina erakunde publikoena ere ezinbestekotzat jotzen dute. Aurreko itxialdian egin zuten bezala, igaro den hilabete honetan tabernariak hainbat bider bildu dira Ermuko Udaleko arduradunekin. Jakin badakite Udala ez dela euren egoeraren erantzulea, baina gertuen duten instituzioa da, eta harekin bakarrik negoziatu dezakete. Udalak laguntzeko nahia adierazi zien hasieratik, baina ostalariek diote harekin harremana ez dela erraza. “Gu tabernariak gara, eta tragoak zerbitzatzen dakigu, ez gaude ohituta horrelako egoeretan jarduten”, baina hala ere, herri mailako instituzio honek laguntza mota ezberdinak eskaini dizkie, “asko negoziatu eta gero”. Hasieran, sektorearekin zerikusi zuzena ez zuten baliabideak eskaini zizkieten: formazioa eta *couching* saioak, negozioak berregituratzeko ikastaroak, zuntz optikako konexioentzako diru-laguntzak… Gauza interesgarriak lortu direla diote tabernariek, baina arlo ekonomikoa ere jorratu nahi zuten: “Lehen itxialdia eta gero, terrazen urteko zerga barkatuko zigutela esan ziguten, gero urte erdikoa izango zela, eta azkenean urte osoa izatea lortu genuen. 300€ko diru-laguntza eskaini ziguten (batzuk oraindik kobratu ez dugu-na), eta bigarren hiruhilekoko uraren eta zaborren fakturaren zatirik handiena kendu ziguten. Orain, bigarren itxialdi honetan burututako protesten ondorioz, 900€ko diru-laguntza zuzena agindu digute, inolako faktura edo ziurtagiririk aurkeztu barik. Arraroa da, baina eskertzen da”.

Etorkizunaz hitz egiterakoan, herriko ostalariek ez dute abendua aipatzen, datorren urtera begira daude. Ea 2021ak berri onak dakartzan.

Dorleta Vidal

Infreñu Taberna
Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com

Mañeko Etxeko Janariak
Erreserbak: 610 222 468

Dejate QUERER BERRIA ERMUA

PUB YOMY
Zubiaurre kalearen bihotzean

Hamburguesería TITANIC
Pintxo dastaketa poteoan
Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

KARABIXA
KARABIXA KAFETEGIA
Egunero 8:30etik aurrera zabalik

hanigan's Irish tavern
Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu
Astegunetan 7:00etatik zabalik
Asteburu eta jaiegunetan, 10:00etatik.
Komentukua z/g · 943030527

Normalitate berria, zailtasun berriak

Jon Saez

Ez, ez, ez, ez, ez… hori nabil entzuten. *Hau ez, hori ez, hura… agian, bai… bueno, ez.* Azkenaldiko istoria. *Orain ez, orain bai, ui ez, ez, ez! Bai, bai, bai…* lana egin, eta azken momentuan, *ez!* Erantzun aldakorren zain. Beti zain.

Askotan ez dut jakin zer egin, orain gutxiago. Zaila egin zait mundua ulertzen hastea; hastea, bai, oraindik ulertzeko asko geratzen zait-eta. Baina are zailagoa da ulertzea, nork berea esaten dizunean. Zaila da nori kasu egin jakitea. Zail egiten zait zer egin jakitea, itxaron edo segi? 1,5 edo 2? 10 edo 6? Neurriak ala debekuak?

Zailagoa egiten zait, gure herria non dagoen ikustea. Zail egiten zait, lana bukatu eta kafe bat hartzeko taberna irekita topatzea. Zail egiten zait gure azokak non dauden ikustea, gure baserritarrak non dauden ikustea, herriko artisauen lanak topatzea, euren produktuak non dauden ikustea… eta zailena, euren soldatak non izango diren ikustea. Zail egiten zait herrian kulturgileak lanean ikustea, euren langabezian diru-laguntzarik ikustea, gure kultura kontsumitzea, eta, kulturgile moduan, lana aurkitzea. Zail egiten zait herrian euskara bultzatzeko ekintzarik ikustea, gure haurren eskolaz kanpoko euskarazko aisia ikustea, gure herriko hizkuntza ohiturak aldatuko dituenik ikustea.

> “Zaila egiten zait mundua ulertzen hastea; hastea, bai, oraindik ulertzeko asko geratzen zait-eta”

Zaila egiten zait ere, haurra eskolara joan eta klasean distantziak mantentzea. Zaila egiten zait autobusean leku librerik aurkitzea, trenean lanetik bueltan datorrenaren besapea ez usaintzea. Zaila egiten zait neurriak ulertzea, eta are zailago betetzea.

Agian, gure kultura maite ez duen, gure hizkuntzarik ez dakien, gure herria ezagutzen ez duen multinazional baten beharra daukagu, gure herriko arazoak konpondu eta bere robot bilakatuko gaituena. Edo agian, hori da daukaguna?

Batzuetan olibondo izan nahi nuke, 2000 urte bizi eta ezertaz gogoratzen ez dena.

Komunitateak
San Pelayo
Aholkularitza juridikoa
Tel. /Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelaio 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

SAGARDUI poltsak
Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305

ZERMIK
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT
ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniaritza-enpresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.
www.zermik.com
Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

IZASKUN TXURRUKA
Goienkale 9 Bajo
48260 Ermua Bizkaia
94 317 66 90
peluqueriaizaskun@gmail.com
peluqueriaizaskun.wordpress.com

SAN PELAYO
Zuri egokitzen den odontologia
La odontología que se adapta a tí
Dra. OLATZ GARCÍA ARREGUI
· P.A.D.I
· IMQ
· SANITAS
· DENTYRED
· AZKARAN
· OCASO
943 17 04 04
info@clinicasanpelayo.com
San Pelayo Zeharkalea 5
48260 Ermua (Bizkaia)

ARRIETA CORDEVI
Etxetresna elektrikoak, telebistak, musika-ekipoak…
…prezio eta kalitate ezin hobean.
VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

LAN BILA

Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko. Astelehenetik ostiralera. Orduka.
✆ 681 310 989.

Neska gaztea, arduratsua eta esperientziaduna eskaintzen da pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo garbiketa lanak orduka egiteko. Egunez zein interna bezala.
✆ 632 044 001

Neska eskaintzen da umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko, edo garbiketa lanetarako. Esperientziarekin. Orduka, jardun erdia edo osoa. Berehala hasi naiteke lanean.
✆ 632 41 53 74.

Abenduaren 11n
Zorionak Irati zure 5. urtebetetzean amama luriren partez!!! Amz



Azaroaren 9an
Zorionak Markel! Dagoeneko 11 urte! Etxeko denon partez patxito potolo bana. Asko maite zaitugu, segi horren alai.

Azaroaren 11n
Zorionak etxekuen partez!! Nahiz eta zoritxarrez azoka bariko San Martinak izan, gora bihotzak!!
Muxu haundi bat!!

Azaroaren 20an
Zorionak Maialen zure 4. urtebetetzean. Musu asko familia osoaren partez. Ondo pasa eguna. Maite zaitugu!!!

Abenduaren 8an
Zorionak Ione zure 6. urtebetetzean!! Muxu lodi-lodi bat familia guztiaren partez. Segi beti hain pozik!! Asko maite zaitugu!!

Abenduaren 15ean
Zorionak Unax, familia osoaren partez! 2 urtetxo jada!! Jarraitu hain alaia eta bizia! Maite zaitugu!!!

Zorionak Beñat eta Markel!! Azaroaren 5ean eta 22an zuen urtebetetzeak izan dira, 6 eta 9 urte bete dituzue!! Segi beti bezain alaiak izaten, muxu pila etxekoen partez.

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezu elektronikoa helbide honetara: **drogeten@gmail.com**

Azken eguna: **Abenduaren 14a.**

Enter informática
SALMENTAK
IRAKASKUNTZA
ZERBITZU TEKNIKOA
VI. Mendeurrena 19, behea
943 17 90 37
enter@informaticaenter.com

arral97.com
arral
Telf.: 943 17 60 75
banatzaile ofiziala
- Luis Cañas familia - Pazo Señorans - Txakoli Akarregi
- Añada Real - Vicente Gandía - Milana
- Yllera taldea - Oriol Rossell - La Loca Juana
- Gomez Cruzado - Astobiza txakolina - nítida
arral@arral97.com - Pol. Ind. Goitondo Goikoa Parcela Pab. 1 - Mallabia

NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA
San Inazio 4 - Ermua
943 030 512 / niklinika@gmail.com

Kopi-Fax
FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISETATAN
Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

ORBE
TOLDOS Y PERSIANAS
- Toldoak
- Ostalaritzarako muntaiak
- Pertsianak
- Instalakuntzak eta konponketak
- Motorizazioa
- Manparak
- Segurtasun pertsianak
- Pertsiana dekoratiboak
- Estoreak
- Eltxo-sareak
Tailerra:
Zearreko Buelta 2
943 17 66 34 - 630 01 13 41
48260 Ermua (Bizkaia)
Erakusketa: Karabixa 1
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 98 60
persianasorbe@gmail.com

MALLABIA 1948

Apoitako Valentin Ameriketara joan zen eta artzain ibili zen 9 urtez. 37 urte Ameriketan egin ondoren Apoitara bisitan bueltatu zenean, ospakizun handia egin zuten, eta banketerako jarri zuten txahala berak ordaindu omen zuen. 1948ko argazki honetan bere familiakoekin batera ageri da Valentin Aramburu.
Jose Astarloa, Bittor Olalde, Santos (Apoitako morroia), Jose Astarloa, Francisca Narbaiza, Bixenta Milikua, Margari Aramburu, Rufina Agirre, Bixente Txurruka, Paulina Milikua, Rufino Berrizbeitia, Ignazio Astarloa, Esteban Bilbao, Juanita Aramburu, Gabino Astarloa, Begoña Berrizbeitia, Pilar Bilbao, Juan Astarloa, Isidora Errasti, Paulo Narbaiza, Joana Aramburu, Begoña Berrizbeitia, Juan Luis Berrizbeitia, Tomas Aramburu, Santi Aramburu, Valentin Aramburu, Mari Cruz Errasti, Jose Aramburu, Migel Astarloa, Bittoria Aramburu, Andres Berrizbeitia, Bixente Bilbao, Maria Luisa Aramburu, Maria Goiogana eta Gregorio Aramburu.

ERMUA 1949

Lagun aldratxoa. Ezkerretik eskumara Margarita Olañeta, Mariatxo Zabala, Ane Orbe, Pilar Bilbao, Teresita Izagirre, Mª Luisa Gorosabel eta Marisabel Iturriagagoitia. Modako zeuden itxura denez belaunetik beherako gabardina zein berokiak eta paparrak solapan zabalduta.

Eskuz egindako terapietan adituak
ARTROS
FISIOTERAPIA MANUAL
Probaleku 5 · 48260 · Ermua
617 680 156
www.fisioterapiamanualartros.com

URRETA burdindenda
✖ Etxea ✖ Giltzak
✖ Tresneria ✖ Sarrailagintza
✖ Brikolajea ✖ Kit altzariak
✖ Errailak
Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

Zure publizitatea:
DROGETEN ITTURRI
Ermua eta Mallabiko herri-aldizkaria
943 179350/688 632876
drogeten@gmail.com

Azaroaren 20an hasi zen aurtengo Euskaraldia, eta abenduaren 4ra arte martxan egongo da. Besteak beste, hizkuntza ohiturak aldatzeko helburua du ariketa sozial honek.

Eta zuk, lortu izan duzu inoiz gaztelaniazko harreman bat euskarara aldatzea edota elebidun bihurtzea?



Bai: 34 boto.
Ez: 6 boto.

Azaroaren 13tik 19ra arte egon da inkesta honetan parte hartzeko aukera, eta guztira 40 boto jaso dira.



Udal Euskaltegia
Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g 2. solairua
ERMUA · 943 170 925
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com

Iberikoetan
espezialistak
Mayte
VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

Desiak
PSIKOLOGIA
ONGIZATE PERTSONALEKO ZENTROA
Nahia Rojo Bustinduy
Psikologoa eta Sexologoa
Hitzorduak: 688 85 18 95

ZINEA

Abenduaren 5etik 8ra
Abenduaren 12tik 15era
Abenduaren 19tik 22ra
Abenduaren 26tik 29ra
Ermua Antzokian.
19:00etan.

ZINE-KLUBA

Abenduak 3
Abenduak 10
Abenduak 17
Ermua Antzokian.
19:00etan.

UMEENTZAKO ZINEA

Abenduak 6
Abenduak 13
Abenduak 20
Abenduak 27
Ermua Antzokian.
17:00etan.

MUSIKA

Abenduak 11:
Kontzertua: Soleá Morente.
19:00etan.
Ermua Antzokian.
Sarrera: 12€

GABONETAKO UMEEN KANPAINA

Abenduak 24:
Olentzero txiki (gutunak ematea)
11:00etatik 13:00etara.
Orbe Kardinalaren plazan.

Abenduak 26:
Umeentzako antzerkia: "Marierrauskin", Glu-Glu Produkzioaken eskutik.
17:00etan.
Ermua Antzokian.
Sarrera: 4€

Abenduak 28:
Umeentzako ipuin-kontaketa: "Olentzeroren gora-beherak".
Lur Kortaren eskutik.
16:30ean eta 18:00etan.
Lobiano Kulturgunean.

Abenduak 29:
Umeentzako ikuskizuna: "Lunaticus circus", Paraiso Antzerkiaren eskutik.
17:00etan.
Ermua Antzokian.
Sarrera: 4€

Abenduak 30:
Umeentzako ipuin-kontaketa: "Urteko azken ipuinak".
Lur Kortaren eskutik.
16:30ean eta 18:00etan.
Lobiano Kulturgunean.

Urtarrilak 2:
Umeentzako ipuin-kontaketa: "Gabonak munduan".
Lur Kortaren eskutik.
16:30ean eta 18:00etan.
Lobiano Kulturgunean.

Urtarrilak 4:
Umeentzako eta gazteentzako kontzertua: "Goazen 7.0", Pausokaren eskutik.
17:00etan eta 19:00etan. Ermua Antzokian. Sarrera: 6€

Urtarrilak 5:
Errege Magoak (gutunak ematea).
18:00etatik 20:00etara.
Errotabarrin, Orbe Kardinalaren eta San Pelaioko plazetan.

Urtarrilak 6:
Umeentzako kontzertu didaktikoa: "Musikarium", Oihan Vega eta Baga -Biga Produkzioaken eskutik.
17:00etan. Ermua Antzokian. Sarrera: 4€

UMEENTZAKO BESTE EKITALDI BATZUK

Abenduak 5:
Umeentzako ipuin-kontaketa ingelesez.
17:30ean.
Lobiano Kulturgunean.

Abenduak 19:
Umeentzako ipuin-kontaketa.
17:30ean.
Lobiano Kulturgunean.

ERAKUSKETA

Abenduaren 1tik 30era arte:
Ertibil-Bizkaia: Bizkaiko artista gazteen lanak.
18:00etatik 20:00etara.
Lobiano Kulturgunean.

BESTELAKOAK

Abenduak 18:
Inprobisazio ikuskizuna: "Jammin on tour".
19:00etan.
Ermua Antzokian.
Sarrera: 10€

Patxi López

TXINDURRI TALDEA
Tokian tokiko
Drogetenitturri, 294 zk.

PRO arraindegia
ITSASKIAK
ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK
Zubiaurre, 21
943 17 16 96
ERMUA

KRABI
Ileapaindegia
Estetika
Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

ALBOKA MUSIKA ESKOLA
- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxeloa
- Bonbardinoa
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoaia musikala
- Klarinetea
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Trikitrixa
- Tronboia
- Tronpeta
- Txistua
Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

Prestatu zuen kamerak... Badator

KONFINATOIA

Euskarazko film-laburren lehiaketa

Adi Sare sozialetara!

Euskal Birusa Elkartea

ERMUKO Gazte Asanblada

Berriro ere

irribarre

egin dezagun

irale

Hortz Klinika
Clínica Dental

Babes neurri guztiak.
Gure ardura,
zure babesa.

C/ Zeharkalea, 8
48260 Ermua, Bizkaia
Tel. 943 17 71 34